

EUSKAL-ZALE BATI BERE IZENEGUNEAN.

Euskal-erriyan jayoak gera,
 Euskal-erriyan aziyak:
 Euskal-erriyan dauzkagu gure
 Aurrerakoen sustraiyak;
 Orregatikan gure biyotzak,
 Naiz izan berak chikiyak,
 Euskal-erriko izan modua
 Dute gordetzen guziyak.

Euskal-erriya ezta iñoiz izan,
 Eskerbeltzdunen tokiya:
 Emen biyotzak gorde izan dute,
 Beti esker chit biziya:

Nola gordetzen duen loreak
 Kontuz barrenen usaya;
 Orri tartean kabiyak gorde
 Oi-duen eran choriya.

Ala biyotza baldin badegu
 Eskertasunez sutua
 ¿Nola ez oroitu gaur zuretzako
 Dala egun gozatsua?
 ¿Nola ez eskatu Jaungoikoari
 Zabal dezala eskua,
 Zuri dezaizun goitik biraldu
 Poz ta zorion osua?

LORENZO GAZTAÑAGA-KOAK.

REGINA COELI.

Poztu ¡Zeruko Erregiña!
 ¡Jauna-alabatu!
 Zuk sabelan seme egiña,
 Jauna alabatu...
 Zion bezela da piztu,
 Jauna-alabatu...
 Jainkoari zeuk erregutu,
 Jauna alabatu...
 Poztu ta alaitu, ¡Birjiñ Mariya!
 Jauna-alabatu...
 Jauna piztu da, bai alegiya,
 Jauna-alabatu.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.